

# PLATER JOKOĀ

## Materiala:

Platera edo frisbeea eta agindu-txartelak.

## Jokatzeko era:

Haur taldea borobilean jarriko da, partaide bat erdian dagoela. Honek platera hartu eta biraka jarriko du, partaide baten izena esanez.

Izendatutakoak platera esku batekin hartu behar du, lurrera erori aurretik. Lortzen ez badu, eginbehar bat bete beharko du. Lortuz gero, berak jarriko du platera biraka, beste norbaiten izena esanez.

## Aldaera:

Plater batekin egin beharrean, pika (psikomotrizitateko makila) batekin egin daiteke, hau lurrera erori aurretik hartu behar dutelarik.

